

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

Samaniegoko HAPOan herritarrek parte hartzeko planaren iragarkia

Duela gutxi onetsi da 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen. 3. artikuluan, herritarrek parte hartzeko plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikokoan argitaratzeko betebeharra ezartzen da, administrazio publiko sustatzailearen arabera.

Gaur egun idazten ari den Samaniegoko HAPO planaren barruan herritarren partaidetzarako plan bat dago. Plan hori 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran onetsi zen, eta herritarren partaidetzarako zenbait ekintza aurreikusita daude. 46/2020 Dekretuan zehaztutakoa betetzeko, herritarren partaidetzarako programa argitaratzen da, HAPOa izapidetzen amaitzeko falta dena.

Orain arte egindako parte-hartze prozesuan kontuan hartu beharreko gaiak:

2020ko urriaren 29an, udalbatzak erabaki zuen HAPOaren aurrerapena jendaurrean jartzea 2 hilabeteko eperako, Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialera eta hedapen handieneko egunkarira bidaltzea, aldameneko udaletara bidaltzea (2/2006 Legearen 90.3 artikulua) eta, Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailera bidaltzea, Irismeneko Dokumentua eman dezan.

Partaidetzarako plana aurrerapen fasean dago; Aurrerapen Memoriako G atalean (Herritarren partaidetza prozesua) Aurrerapen Dokumentua jendaurrean jarri arte jarraitutako parte-hartze prozesua jasotzen da.

Jarraian, HAPOa behin betiko onetsi arte aurreikusitako lan programa azaltzen da; adierazitako datak eta saioak partaidetza prozesuak berak eskatzen duenaren arabera egokituko dira; nolahi ere, egiten den saio bakoitza iragarri egingo da, eguna, ordua, lekua eta edukia alde aurretik adierazita, iragarki taulen, udalaren webgunearen eta emaileen bidez, giza talde guztiei.

Herritarrek parte hartzeko programa

2020ko abendua	HAPOaren aurrerapena herritarrei aurkeztea, alegazioak errazago egin ahal izan ditzaten.
Hasierako onespenerako plana egiteko fasearen erdi aldera	Nahiz eta herritarren parte hartzeak interes berezia duen planaren estrategia ezartzen den aurrerapen fasean, esperientziak erakusten du planaren idazketan ere herritarren oharrak eta iradokizunak izatea komeni dela. Saioa bizilagunekin, HAPOren oinarritzko proiektua azaltzeko. Proiektu horrek modu eskematiko eta argian jasoko ditu HAPOren hirigintza araudian artikulua bidez garatu beharko diren zehaztapenak. Dokumentazio horrek, Planaren planoen zirriborroekin batera, oharrak eta ekarpenak jasotzeko oinarri nahikoa emango du.
Ondoren	Aurreko bileren arabera azterketa sakonagoa eskatzen duten gai eta auzi espezifikoei bilerak edo lan saioak prestatuko dira.
Hasieran onartutako HAPOa jendaurrean jartzeko fasean	HAPOaren edukiaren aurkezpena herritarrei, alegazioak errazago egin ahal izan ditzaten.

Samaniego, 2020ko azaroaren 6a

Alkatea

M. PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE